

MARTINTXO ETA SUGE GORRIA

Bazen behin mutiko bat Martintxo deitzen zena. Martintxo bere aitarekin, amarekin eta anaiarekin bizi zen.

Egun batean, Martintxo basora joan zen eta, bat-batean, kataplan!!! jausi egin zen suge gorri batekin estropezu eginda. Suge gorri horrek zauri handi bat zeukan. Martintxok bere etxera eraman zuen suge gorria. Etxean Martintxoren amak sugea sendatu zuen eta sugea Martintxoren lagun handia egin zen.

-Ama!

-Zer?

-Ahal dut sugea niretzat hartu?

-Bai, zergatik ez?

-IUPI !!!!!

Egun batzuk pasatuta, Martintxok, esnatu zenean, gutun bat ikusi zuen. Gutunean gauza bat idatzita zegoen:

Zure sugea berriro ikusi nahi baduzu

Hau egin behar duzu:

Hondartzara joan, kalabera izeneko

eta formako harrira joan, 12 pasu

atzera eman eta kobazulora sartu.

Eta Martintxo hara joan zen sugearen bila. Hondartzara heldu zenean, hasi zen bilatzen harri kalabera. Handik minutu batzuetara, pertsona bat pasatu zen eta Martintxok galdetu zion:

-Aizu, aizu!!

-Zer?

-Badakizu non dagoen harri kalabera?

-Bai, denok dakigu, hor goian dago.

-Eskerrik asko!

-Ez horregatik!

Eta Martintxo igo zen eta hasi zen bat, bi, hiru, lau..... hamabi. Martintxo kobazulora sartu eta bere sugea ikusi zuen, eta lapurra ere bai.

Martintxok itxoin egin zuen lapurrak lo hartu arte. Orduan, soka bat hartu zuen eta lapurrari eskuak eta hankak lotu zizkion. Gero, harriekin estali zuen eta sugea hartu eta etxera eraman zuen.

-Ama, ama!!!!

-Zer ume, zer? Zer pasatzen da?

-Harrapatu dut sugea harrapatu zuen lapurra.

-Eta zer nahi duzu egitea?

-Udaltzaingora deitu.

Amak deitu zuen eta udaltzainek lapurra harrapatu zuten.

Martintxo eta sugea oso lagunak egin ziren.

Eta hala bazan edo ez bazan sar dadila kalabazan eta iren dadila Abadiñoko plazan.